



Arartekoaren 2015R-1649-14 Ebazpena, 2015eko azaroaren 10ekoa. Horren bidez Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari gomendatu zaio ertzain baten jardunari buruzko kexari erakunde honen gomendioekin bat egiten duen tratamendua eman diezaiola eta jardun horri buruz interesdunak agertutako zalantzak argitu ditzala.

Aurrekariak

1. (...)ek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen uniformerik gabeko polizia-agente baten jarduna zela-eta, bere ustetan agentearen jarduna neurritz kanpokoa izan baitzen eta bere egitekoen gehiegizko erabilera egin baitzuen.

Egitateen bertsioaren arabera, 2014ko uztailaren 11n, 02:30ak aldera, Bilboko Barrenkale kaletik zihoan beste pertsona batzuekin batera. Orduan, Julian Etxebarria Kamaroi kantoian istilu txiki bat zegoela konturatu zen, eta zer gertatzen ari zen ikustera gerturatu zen. Azaldutakoaren arabera, une hartan uniformerik gabeko gizon bat hurbildu zitzaion. Hark ez zion esan polizia zela, ez zion inolako plakarik erakutsi eta ibiltzen jarrai zezala esan zion. Kexagilearen arabera, zer gertatzen ari zen ikustera baino ez zela hurbildu erantzun zionean, gizonak identifikatzeko eskatu zion.

Interesdunak esan zigun Nortasun Agiri Nazionala bilatzen ari zenean solaskideari bere burua identifikatzeko eskatu ziola, polizia-agente bat bazen. Hark, hasieran, identifikatzeari uko egin zion, baina kexagilearekin zeuden pertsonak behin eta berriro eskatu ziotenez, hala egin zuen. Halaber, esan zigun agentea ahoz identifikatu zela (...), agentea zela esanez, baina ez zuen zein kidegotakoa zen zehaztu, ezta bere egiaztapen profesionala erakutsi ere. Kexaren arabera, une hartan uniformerik gabeko beste pertsona batzuk azaldu ziren lekuan, eta ondoren Ertzaintzako patruila uniformedun bat agertu zen.

Kexagileak adierazi zigun ez zuela identifikatzeko erresistentziarik jarri eta ez zuela poliziaren jarduna oztopatu. Geroago jakin zuen une horietan jarduna aribidean zela. Baita ere adierazi zigun ez zuela agindua desobeditzeagatik agenteak geroago haren kontra jarri zuen administrazio-salaketa-aren idazketa oztopatu [garai hartan indarrean zegoen Herritarren Segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 26.h) artikulua]. Eta azpimarratu zuen agenteak berak ez zuela salaketan jaso inguruabar horiek gertatu zirenik, eta horrek, bere ustetan, horri buruz adierazten ari zen guztia berresten zuen.

Interesdunak esan zigun salaketa sinatzeari uko egin ziola, agenteak agiri horretan islatutako egitateen kontakizunarekin ados ez zegoela adierazteko asmoz. Agiri horren arabera: *"se invita a este ciudadano a continuar en el transcurso de una detención. Se le invita a continuar hasta tres veces argumentando (que si le da la gana), que está en la calle"* (salaketa-orriaren zk.: ...).





Kexagileak azaldu zigun ez zegoela kontakizun horrekin ados; izan ere, esan zigunez, berak ez zuen inolako desobedientziarik jarri eta agenteak ez zion hirutan eskatu ibiltzen jarraitzeko.

Era berean, adierazi zigun agenteak salaketa-aktan jaso zuen identifikazio-zenbakia ezin zela ondo irakurri eta ez zetorrela bat ahoz esan zionarekin. Beraz, ez zekien segurtasun osoz agente horren benetako identifikazio-zenbakia zein zen.

Bestalde, interesduna kexu zen agenteak identifikazioa eskatu ziolako eta ez ziolako jakinarazi zergatik egin zion eskaera hori.

Bere ustez, identifikazio-eskaera ez zegoen inola ere justifikatuta, eta gertatzen ari zenaz interesatu zelako soilik eskatu zion. Balorazio horren ondorioz, agenteak salaketa bat jarri zuen bere aurka herritarren segurtasunari buruzko araudia hausteagatik.

Halaber, kexagileak salatu zuen agenteak bere burua ahoz identifikatu zuela, ez ziola bere txartel profesionala erakutsi eta ez zuela esan zein polizia-kidegotakoa zen.

Adierazi zigunaren arabera, emandako egitateen kontakizuna berrets dezakete berarekin zeudenek.

Hasiera batean eta kexa izapidetu den bitartean interesdunak eman digun informazioaren arabera, agentearen salaketaren ondorioz sail horrek kexagilearen aurka izapidetutako zehapen-prozedurak erraztu egin zuen pertsona horien identifikazioa. Horiek deskarguan emandako egitateen kontakizuna izenpetu zuten eta beren bertsioa berresteko prest agertu ziren, bai eta zehaztasun gehiago emateko ere, halakorik eskatzekotan. Dokumentazio horren arabera, agentearen jardunari buruz Segurtasun Sailaren aurka aurkeztutako kexan ere datu hori eman zuen, eta bat zetorren erakunde honetan aurkeztu zuenarekin. Kexa hori Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoan izapidetu zen.

Kexagileak kexak hizpide zuen agentea zein polizia-kidegotakoa zen ez zekiela adierazi arren, emandako dokumentazioa eta datuak kontuan hartuta, Ertzaintzako kide bat zela ondorioztatu genuen.

2. Kexa izapidetzea onartu eta aztertu ostean, kexagileak agentearen jokabideari buruz egindako galderetara mugatu genuen gure jarduera, izan ere prozeduraren amaieran agenteak jarritako salaketaren ondorioz Segurtasun Saila izapidetzen ari zen zehapen-prozedurak erakunde honen esku-hartzea baldintzatzen zuen.

Gure esku-hartzearen esparrua mugatu ostean, aipatutako sailera jo genuen kontu horien gaineko informazioa eskuratzeko.



Era berean, eskatu genion agentearen jarduna iker zezala, poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako oharrei jarraituz (II.1.1 atala), eta ikerketaren edukiaren, barruan ikertzeko bideratutako jardunen eta ikerketan ateratako ondorioen berri eman ziezagula.

Halaber, agentearen jarduna aztertzeke eskatu genion, eragin duten gertakariei dagokienez, atestatuen eta administrazio salaketan edukiaren kontrolari buruz gomendio horretan egindako oharrak (II.2.3 atala) kontuan hartuta. Horrez gain, gomendio hori aplikatuz bideratutako prebentzio- eta kontrol-neurrien eta burututako azterketaren berri emateko ere eskatu genion.

Baita ere eskatu genion kexan aipatutako agenteak kexagileari identifikatzeko eskatu izanaren arrazoiak jakinarazteko, bai eta kexagilearen identifikazioa jasotzen zuten polizia-erregistroen kopia bat emateko ere.

Azkenik, kexa eragin zuten egitateak argitzeko interesgarritzat jotzen zuen beste edozein informazio emateko eskatu genion, hala, kexak piztutako kezkei erantzun egokia emateko.

Gure eskaerari erantzunez, kexagilearen aurka egindako salaketan agenteak islatutako egitateen bertsioa baino ez zigun bidali Segurtasun Sailak, hain zuzen ere, eta aipatu den moduan, kexaren xedea zena. Halaber, azaldu zigun jardun hori judizialki argitzeke zegoela, interesdunak horren aurkako salaketa judizial bat jarri baitzuen.

Zehazki, hau da Sailak eman zigun informazioa:

"A las 2h 27 m. del día 11 de julio de 2014, a requerimiento de una persona que había identificado visualmente, en el bar (...) sito en la calle Barrenkale de Bilbao, a un individuo presumiblemente relacionado con la comisión de una agresión sexual a una chica ocurrida en fechas recientes, Agentes de la Ertzaintza se desplazaron al lugar.

En el marco de la actuación y en concreto durante el desarrollo de la identificación de la persona sospechosa de haber cometido una agresión sexual, según manifestó el Agente de la Ertzaintza actuante, ordenó hasta en tres ocasiones al identificado como (...), a que continuase la marcha, argumentando éste que él se iba si le daba la gana y que ésa era la calle. Como consecuencia de estos hechos y tras finalizar la actuación policial de identificación, el agente procedió a denunciar administrativamente a D. (...), referencia (...), por entender que se había producido una desobediencia a agente de la Autoridad, preceptuada en el art. 26 h) de la LO 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

En relación con la información solicitada, manifestar en primer término que por estos mismos hechos, el día 29 de julio de 2014, (...) interpuso y aportó en dependencias de la Diputación Foral de Bizkaia, escrito de alegaciones a la

denuncia administrativa formulada, adjuntando así mismo, copia de denuncia judicial interpuesta, el día 11 de julio de 2014, en el Juzgado de Guardia de Bilbao, también por los mismos hechos.

Por otra parte, el escrito de alegaciones anteriormente referido se remitió a EKINBIDE a los efectos oportunos, donde, tras incoar el expediente de referencia Ekin/(...) y tras las investigaciones correspondientes en las que se constató la existencia de una denuncia judicial por los mismos hechos y actuaciones, se determinó mantenerse a la espera de que la Autoridad Judicial competente juzgue lo trasladado en la queja.

En definitiva, la supuesta actuación considerada desproporcionada y prepotente por parte de un Agente de la Ertzaintza, está pendiente de dilucidarse judicialmente".

Transkribatu diren azalpenak baino ez zizkigun eman Segurtasun Sailak, eta ez zigun eskatutako informazio hau eman: a) egitateak argitzeko bideratutako barne-ikerketa; b) agenteak kexagilearen aurka egindako administrazio-salaketaren kontrola, salatutako egitateak errealitatearen ikuspuntura egokituta; c) aipatutako kontrolari buruz egindako gomendioa betetzeko hartu ziren neurriak, eta d) agenteak kexagileari identifikatzeko eskatu izanaren arrazoi zehatzak. Ez zizkigun eman identifikazioa dokumentatzen zuten erregistroak. Eta, azkenik, ez zizkigun jakinarazi dokumentazio eta informazio hori ez emateko arrazoiak.

4. Segurtasun Sailaren informazioa jaso ostean, kexagileak adierazi zigun sail horrek zigortu egin zuela agenteak salatutako egitateen ondorioz, egitate horien egiazkotasun-presuntzioan oinarrituta. Baina, gora jotzeko errekurtsioa jarri ostean, ofizioz, jarduna artxibatu eta prozedura iraungitzat jo zen, errekurtsioan planteatutako edukiari buruz ezer adierazi gabe.

Interesdunak zehapen-prozeduraren gaineko dokumentazioa eman zigun. Horren arabera, aipatutako sailak prozedura iraungitzat jo zuen, Zigortzeko Ahalmenaren erabilerarako Prozeduraren Araudiaren (abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak onetsi zuena) 23. eta 24. artikuluetan oinarrituta, izapidetutako prozedura sinplifikatua zela ulertzen baitzuen, hasteko erabakiak arau-haustea arin gisa kalifikatzen zuelako eta, ondorioz, prozedura ebazteko hilabeteko epea gainditu egin zelako.

Aipatutako dokumentazioak, halaber, azaltzen zuen izapidetutako prozedura arrunta zela, eta ez sinplifikatua, eta prozedura arruntari dagokion legezko epearen barruan eman eta jakinarazi zela ebazpena.

Halaber, dokumentazio horrek honakoa jarri zuen agerian:

- zehapen prozeduran egitateak frogatutzat jo ziren, "*elaborado por agentes de la Ertzain-etxea de Bilbao*" txostenean oinarrituta, eta kexagileak aurkeztutako alegazioen berri izan zuenean agenteak egin

zuen berrespen hau oinarri hartuta: *"Sobre las 02:27 horas del día 11 de julio de 2014, cuando agentes de la Ertzaintza se encontraban identificando a una persona en Barrenkale, nº 17 de Bilbao, y tras identificarse como tales, requirieron en repetidas ocasiones a (...) para que se apartase del lugar, por su seguridad y por la del resto de los agentes, haciendo caso omiso a los requerimientos"*.

- kexan aipatutakoaren arabera, egitate horiekiko desadostasuna azaldu zuen kexagileak. Gaineratu zuen, agenteak, dirudienez, egiten ari ziren identifikazioa ez zela Barrenkale kaleko 17. zenbakian gertatu, baizik eta kale horretako 11. zenbakiaren ondoan, Julian Etxebarria Kamaroi kantoian.
- kexagileak zehapen-prozeduran aipatu zuen, horrez gain, kexak hizpide duen agentearekin batera zeuden uniformerik gabeko gainerako agenteak, harekin batera salaketa sinatu zuena barne, egitateen unean 8 edo 10 metroko distantziara zeudela, eta tokiaren ezaugarriak kontuan hartuta, ezin izan zutela agente salatzaileak berarekin izan zuen jarduna ikusi. Egoeraren eskema bat ere egin zuen. Horren arabera, Barrenkale kaleak eta Julian Etxebarria Kamaroi kantoiak bat egiten duten lekuan zegoen agente salatzailea. Gainerako agenteak kantoian zeuden eta kexagilea eta bere lagunak Barrenkale kalean, kantoia ondoan.
- Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoak, hasieran, kexagileari bere kexari buruz eman zion erantzunean, agenteak alde egiteko agindu izanaren arrazoiak azaldu zizkion. Horien arabera, tartean ziren agenteek legez kanpoko ekintza bat burutu zuen pertsona bat identifikatzen ari ziren bitartean *"se le instó a que abandonase el lugar a los efectos de salvaguardar la intimidad de la misma"*; geroago, arrazoi horiei zegokienez, agenteak *"le ordenó en repetidas ocasiones que abandonase el lugar por motivos de seguridad"*.

Egitateak argitzeko ikerketa-jarduerei dagokienez, erantzun horretan zera aipatzen zen: tartean ziren agenteen testigantza jaso zela, eta testigantza hori ez zettorrela bat kexagileak emandako bertsioarekin. Horren ostean, honakoa adieraziz amaitzen zen erantzuna: *"Nos encontramos de este modo ante versiones contradictorias de lo sucedido y en ausencia de elemento probatorio alguno de carácter objetivo que nos permita otorgar mayor credibilidad a una u otra"*.

- bulego horrek emandako erantzunean aipatu zuen kexagileak salaketa judizial bat jarri zuela, kexa eragin zuten egitateak zirela-eta, baina ez zuen inondik inora aipatu bide judizialaren bidez eman beharreko ebazpenaren zain geratzea erabaki zuenik, Segurtasun Sailak emandako informazioan aipatzen zen bezala.

Bestalde, interesdunak eman digun informazioaren arabera, agentearen jardunaren aurka aurkeztutako salaketa artxibatu zuen jurisdikzio penalak.

Gogoetak

1. Arartekoak euskal administrazio publikoen mendeko polizia-kidegoei gehien egin dien gomendioetako bat da beharrezkoa dela bertako arduradunek ofizioz ikertzeko barne-prozedura bat hastea, agenteren batek bidegabeko jarduketaren bat egin duela jakiten duten bakoitzean, zer gertatu den ikertzen saiatzeko, jarduketa hori bide egokietatik egin ote den egiaztatzeko eta, hala badagokio, diziplinazko edo beste modu bateko neurri egokiak hartzeko.

Horren inguruan, adierazi dugu polizia arduradunek aintzat hartu behar dituztela herritarrek egindako kexak edo salaketak, horien berri zeinahi bidetatik izan dutela ere, betiere argitu eta ikertu behar duten lehen zantzu gisa, argi eta garbi gezurra edo sinesgaitzak direnean izan ezik.

Nabarmendu dugu, halaber, ikerketa bat hasteak ez duela esan nahi kexari erabateko sinesgarritasuna ematen zaionik, ez eta agenteen profesionaltasuna zalantzan jartzen denik ere, baizik eta funtsezko tresna bat dela jarduketa bidegabeak prebenitzeko, bai eta, halakoak gertatzera iritsiz gero, atzemateko eta zuzentzeko ere.

Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean Arartekoak horren inguruan duen ikuspuntua jasotzen da (II.1.1. atala), agirian bertan azaltzen denez, erakunde honek zentzu berean egindako aurreko beste gomendio eta erabakietatik sortutakoa.

Gomendio horretan azpimarratu dugu ikerketaren edukiak jarduna argitzeko egokia eta nahikoa izan behar duela. Aipatu dugu gertatutakoa ezagutzen saiatzeko ahalegin handia egin behar dela ikerketan, eta gertakari horiek argitzeko baliagarriak diren ikerketarako arrazoizko aukera guztiak agortu behar direla. Adierazi dugu agenteek emandako bertsioa salatutako gertakariekin bat ez etortzeak ez duela balio, berez, bestelako ikerketa-jarduerak egitea baztertzeko edo poliziaren jardunaren egokitasunari buruzko epaia oinarritzeko. Aipatu dugu, kexak ikertzeko bestelako ikerketa jarduera batzuk burutzeko ezintasuna justifikatuta egon ezean, ikerketak ezin duela soilik tartean diren agenteen testigantza jaso, eta ezin dela besterik gabe emandako bertsio hori ontzat eman. Halaber, nabarmendu dugu, azken bi jarraibide horiek bereziki garrantzitsuak direla zalantzan jartzen dena atestatu bateko edo administrazio-salaketa bateko poliziaren bertsioaren egitasuna denean, eta agenteekin zerikusia duten arau-hausteei lotuta daudenean, esku artean dugun kasuan gertatzen den moduan.

Gomendioan aztertu dugu poliziaren ikerketa hori zigortzeko prozedura batekin batera gertatzeko aukera aztertu dugu, eta erakunde honen esku-hartzearen eremua murriztu dugu egoera horretan.

Kontu horietako lehenengoari dagokionez zera aipatu dugu:

“Ohikoa da, polizia jardueri buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalaren azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonen salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.

Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judicial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.

Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkiela polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jarduera ikertzea ezta behar diren parametroen arabera izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkakoa den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *‘Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokeen diziplina espedientea agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedientea egin zaienak behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira. Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebatziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du’ (91.5 art.).*

Halako kasuetan funtsezkoa da prozedura penalean zer epaitzen den zehazki ezagutzea. Gure ikuspegitik, ez da berdin polizia funtzionarioen portaera ala poliziaren esku-hartzea dela-eta egindako argiketan jasotako gertakariak izatea. Bigarren kasuan, auzitegiak ez du kexa eragin duen polizia jarduera aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatzen zaion pertsonaren portaera baizik eta, beraz, ikertu beharreko gaian ez legoke auzitegien esku-hartze zuzenik.

Argiketan jasotako egitateak epaitzen direnean, gainera, egotzitako pertsonaren absoluzioa poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzua izan liteke, baina haren kondenak ez luke inolaz ere esan nahi poliziaren portaera egokia izan zenik. Elkar orekatzen ez duten legez kontrako jardura bi batera gertatzea baino ez litzateke.

Polizien aurkako salaketa judiciala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa arxivatzen bada edo epaia absoluziokoa bada.

Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariak hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz.” [II.1.1.b atala].

Kasu horietan Arartekoaren esku-hartzearen esparruari dagokionez zera azaldu dugu:

“Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arrazoietakoa bat, gure esku-hartzea erabat arbuatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.

Kexa eragin duen polizia jarduera berari lotutako gertakariengatik prozedura judicial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakartzkio erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: *‘Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko’.*

Hala ere, uste dugu artikuluko horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudentzia penalak ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Ezta, gure iritziz, prozedura judizialean sartzen ez diren kexaren beste alderdiak aztertu edo kasuan Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan.

Gure ustez, azken batean, inguruabar horrek ezin liteke oztopoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 53 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema itxeko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eraten ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jarduera bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere” [II.1.1.c atala].

Aurrekarietan jasota geratu den moduan, Segurtasun Sailak ez digu adierazi kexak hizpide duen polizia-jarduna ikertu duen ala ez. Ez digu adierazi ezta ere zein den kexagilearekin batera zeuden pertsonen testigantzak jaso ez izanaren arrazoa.

Hala eta guztiz ere, sail horrek eman digun informazioaren arabera eta kexagileak Sailean aurkeztutako kexari Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoak emandako erantzuna kontuan hartuta, ondoriozta daiteke egitateak argitzeko burutu diren ikerketa-jarduera bakarrak honako hauek izan direla: a) kexak hizpide duen agentearen eta bertan ziren agenteen testigantza jasotzea; eta b) agente salatzaileak interesdunaren aurkako salaketan azaldutako egitateen kontakizuna kontuan hartzea, hain zuzen ere kexaren xedea dena.

Burutu den ikerketaren inguruko informazio falta –ez baita justifikatu eta gure iritziz ez baitago justifikatuta– eta Segurtasun Sailak ikerketa-jarduera horiek soilik jakinarazi dizkigula kontuan hartuta, ondorioztatzen dugu sail horrek ez duela urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako jarraibideetan (II.1.1 atala) oinarritutako kexaren ikerketarik egin.

Halaber, gomendio hori berriro aipatu behar dugu, bai eta horiek betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak abian jartzeko beharra ere, besteak beste alor horretan jarduketa-protokolo argi eta zehatzen ezarpena.

Halaber, Segurtasun Sailak emandako azalpenek honako hau azpimarratzera behartzen gaituzte: kexa baten ikerketa ezin da mugatu tartean dauden agenteen bertsioa jasotzera, are gutxiago zalantzan jarri dena bertsio hori denean, eta esku-hartze judiziala ez da egitateak ikertzeko oztopo, ez eta erakunde honi barne-ikerketari buruzko informazioa emateko ere.

Bestalde, aurrekarietan azaldu dugun bezala, kexagileak eman digun informazioaren arabera, agentearen jardunaren aurka aurkeztutako salaketa artxibatu zuen jurisdikzio penalak. Informazio horri dagokionez, nabarmendu behar dugu poliziaren jardun batek garrantzi penalik ez izateak ez duela esan nahi jardun horrek jarraitu beharreko jarraibideak kontuan hartu dituenik.

- 2 Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.2.3 atala) azpimarratu dugu polizia arduradunek atestatu eta administrazio-salaketen kontrola egiteko beharra, agenteek dokumentuetan jasotzen dituzten gertakariak gertatutakoaren errealitatea leialki islatzen dutela bermatzeko. Horrez gain, aipatu dugu mekanismoak ezarri behar direla, alor horretako gehiegikeriak saihesteko eta, halakorik gertatuz gero, gehiegikeria horiek aditzera emateko.

Horren inguruan, ondoko hau adierazi dugu:

“Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka egindako argiketen edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jarduera eragin zuten gertakarietara dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo behar agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz. Erreklamazio-gileek horrela lotzen zituzten jokabidea eta poliziek ondoren balizko polizia jarduera desegokia zurrizteko egindako ahalegina edo erakunde honek ‘kontrasalaketa’ deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.

Oso kezagarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haien aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezkoasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezkoasun itxura horregatik. Horregatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea.

Horri buruz jaso dugun informazioa dela-eta, ulertzen dugu arlo horretan ez dela kontrol tresnarik ezarri eta berriz esan behar dugu egin behar dela”.

Aurrekarietan aipatu dugun moduan, Segurtasun Sailak ez digu esan kexak xede duen polizia-jarduna ikuspuntu horretatik aztertu den, eta ez dira ezarri gomendioa puntu horretan betetzeko beharrezko mekanismoak. Hain zuzen ere, berriaz galdetu genion kexa eragin zuten alderdi horien gainean.

Sail horrek ez zigun informaziorik eman kexagileak ondoko kontu hauen inguruan egindako galderei buruz: kexak hizpide duen agenteak salaketan idatzitako egitateen kontakizuna, agentearen zehaztasun falta polizia-jarduna kokatzeko orduan, eta salaketa sinatu zuen beste agenteak salatutako egitateak ikusi ahal ez izana.

Informaziorik ez edukitzeak –ez baita justifikatu eta gure iritziz ez baitago justifikatuta– honako hau ulertzea behartzen gaitu: Segurtasun Sailak ez ditu argitu interesdunak agertutako zalantzak, hau da, kexak xede duen polizia-jarduna zuzena izan ote zen, eta gure iritziz, hala egin beharko luke.

Halaber, hori kontuan hartuta, ezinbestean ulertu behar dugu polizia-jarduna ez dela gomendioan aipatzen den ikuspuntutik aztertu eta ez dela mekanismorik ezarri hori betetzen dela bermatzeko.

Azkenik, gomendio hori eta aipatutako mekanismoak ezartzeko beharra berriro nabarmentzera behartzen gaitu.

Beste behin ere nabarmendu behar dugu alor horretan ematen diren ustezko gehiegikeriak normalean ez direla lehen begiratuan ikusi ahal izateko moduan aurkezten, poliziaren jardunaren legezkotasunaren itxurapean ezkutatu ohi direlako, eta horrek asko zailtzen du gehiegikeriak antzematea eta frogatzea.

Hori da, hain zuzen ere, gomendioan aipatzen genuen arazoa, eta horregatik eskatu genien polizia arduradunei alor horretan gehiegikeriak posible direla jabetu zitezten, gehiegikeriak saihestu eta antzemateko lehen eta beharrezko pausu gisa.

Gure ustez, Segurtasun Sailaren alor horren gaineko informazio faltak agerian uzten du ez direla jabetu.

3. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean, Arartekoak aipatzen du poliziak herritarren parte-hartzearen inguruan egiten duen kudeaketak ez duela oinarritzeko eskubideen gauzatzea mugatu behar guztiz derrigorrezkoa dena gaindituz. (IV atala).

Gomendio horretan zehazki bilera- eta mintzaira-eskubideak aipatu ditugun arren, horren inguruan egindako gomendioak beste edozein eskubideri ere aplikatu dakizkiokeela uste dugu.

Gure ustez, askatasunez ibiltzeko eskubideari lotutako mota horretako auzia piztu dezake kexak. Beraz, uste dugu, Segurtasun Sailak ikuspuntu horretatik ere aztertu beharko lukeela agenteak kexagileari alde egiteko eman zion gindua.

4. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi dugu eskubideak mugatzen dituzten polizia-jardunak nahikoa arrazoitu eta erregistratu behar

direla, eta justifikazioak behar bezala dokumentatu behar direla. Halaber, uste dugu "herritarren segurtasuna" bezalako formula generikoak erabiltzeak ez duela balio jardun horiek justifikatzeko, formula horien bidez ezin baitira jardunaren arrazoi zehatzak ezagutu, ezta baloratu ere. Eta aipatu dugu, eskubideak mugatu dituzten eta bide publikoan egin diren jardunen kasuan, justifikazioa eta erregistroa sendotu egin behar direla kasuan kasuko kontrol-zentroari jardunaren eta arrazoiaren berri emanez (II.1.3 atala).

Aurrekarietan aipatu dugun moduan, Segurtasun Sailak ez digu azaldu agenteak zergatik agindu zion kexagileari ibiltzen jarraitzeko. Ez digu eman arrazoi horiek jasotzen dituen dokumentaziorik, ez eta polizia-jarduna aipatutako gomendiora egokitu izana jasotzen duenik ere.

Bestalde, interesdunak eman digun informazioaren arabera, agenteak ez zituen aginduaren arrazoiak jaso agindu hori ez betetzeagatik agenteak kexagilearen aurka aurkeztu zuen salaketan.

Lehenago adierazi dugun moduan, aipatutako dokumentazioaren arabera, Ekinbide Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoak kexagileak aurkeztutako kexari emandako erantzunean, agindua bereizketarik egin gabe justifikatzen da segurtasun arrazoiaren eta agenteek identifikatzen ari ziren pertsonaren intimitatearen babesean; aldiz, agentearen salaketaren ondorioz hasitako zehapen-prozeduran kexagilearen eta agenteen segurtasunean baino ez da justifikatzen agindua. Bi kasuetan, justifikazioa generikoki egiten da eta ez da zehazten zergatik ulertu zuen agenteak kexagileak bertan jarraitzeak bere segurtasuna eta agenteena arriskuan jartzea eragin zezakeela, eta garatzen ari zen polizia-jardunean sartuta zegoen pertsonaren intimitateari ere eragin zekiokela bertara hurbildu zenean.

Segurtasun Sailaren informazio faltak, agenteak kexagileari agindu hori eman izanaren arrazoiak dagokienez eta kexagileari emandako arrazoi generikoetan oinarritutako justifikazio bereizezinari dagokionez, jardun horren arrazoi zehatzak zeintzuk izan ziren jakitea galarazten diote erakunde honi.

Informazio faltak, eta Sailak aipatutako bermeak bete izanaren jakinarazpenik eman ez izanak, polizia-jardunak gomendioa puntu horretan bete ez zuela ulertzera behartzen gaitu.

Halaber, sail horrek agentearen jardunari buruz kexagileak agertutako zalantzak argitu ez dituela ulertzera behartzen gaitu, baita gomendioa eta gomendioa betetzen dela bermatzen duten mekanismoak ezartzeko beharra azpimarratzera ere.

5. Zigor-arloko jurisdikzio-ordenako epaitegi eta auzitegiek hainbat baldintza exijitu dituzte, salatzen dituzten agentearen agenteekin zerikusia duten legez kontrako gertaerak atzemateko, besteak beste agentearen agenteek kanpo-ezaugarrien bitartez bere nortasuna modu argian erakustea, ustezko arduradunak nortasun horren berri izan dezan, eta agenteak bere eginkizunak

betetzen dituenean mugak gainditu ez ditzan, besteak beste urriaren 27ko Auzitegi Gorenaren 1010/2009 epaia (Zigor-arloko Sala, 1. sekzioa); martxoaren 20ko Gasteizko Probintzia Auzitegiaren 101/2012 epaia (2. sekzioa); 2011ko uztailaren 21eko Kanaria Handiko Las Palmaseko 8. instrukzioko epaitegiaren epaia, eta 2014ko martxoaren 6ko Madrilgo 11. instrukzioko epaitegiaren epaia.

Egokia iruditu zaigu exigentzia horiek aipatzea, izan ere, gure ustez, kexak hizpide duen agenteak kexagilearen aurka egindako salaketa aztertzeko parametro gisa balio dezakete.

6. Poliziaren kode deontologikoaren arabera (Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legaren 30. artikulua), *San Frantzisko aldean atzerritarrekin egindako polizia-jardunak* txostenean (1998ko urteroko txostena) adierazi dugu agenteek identifikazio-zenbakia erakusteko betebeharra dutela, beharrezkoa denean eta beraiekin erlazionatu diren pertsonak hala eskatzen dietenean, eta pertsona horiei beren jardunari buruz ahalik eta informazio zabalena eman behar dietela [8. gomendio zehatza, b) atala].

Ertzaintzaren irudi korporatiboari buruzko Segurtasun Sailburuordetzaren 70. instrukzioak ere –2014ko uztailaren 16an Segurtasun Sailak Legebiltzarrari bidalitako testuaren arabera, eta azken erakunde horren webgunean agertzen dena (10/10/07/02/2180 legebiltzar ekimena)– eginbehar horiek jasotzen ditu (VI.3.1 atala). Halaber, instrukzioak, oro har, zerbitzuan zehar uniformerik ez daramaten agenteak hasieratik Ertzaintzako kide gisa identifikatzera behartzen ditu, bai ahoz bai egiaztapen profesionala erakutsiz, edozein erakunderi edo partikularri zuzendu behar zaienean (VI.3.1.4 atala).

San Frantzisko aldean atzerritarrekin egindako polizia-jardunak txostenean nabarmendu dugu, baita ere, agente batek bide publikoko pertsona bati hasieran zuzentzeko duen erak gertakarien garapenean duen eragina [8. gomendio zehatza, b) atala].

Aipatu dugu, baita ere, polizia-jardun bat dela eta, eragindako pertsonak egindako informazio eskaera, edota are, jarduera hori zalantzan jartzea edo kritikatzeta, ez dela besterik gabe hartu behar agintearen agenteenganako desobedientzia gisa, ezta legez kontrako antzeko beste gertaera gisa ere. Eta neurri batzuk proposatu ditugu alor horretan gehiegikeriak saihesteko, esaterako agenteekin zerikusia duten legez kontrako gertaerengatiko egozpenen kontrol kuantitatiboa egitea (erresistentzia, desobedientzia edo antzeko arau-haustek), zifra horiek agente edo patruila batzuetan kontzentratzen ote diren aztertuz, eta egozpenen ondorioz emandako ebazpen judizialen jarraipena eginez [8. gomendio zehatza, e) atala].

Gure ustez salaketa aurkezten duten agenteekin zerikusia duten arau-hauste administratiboengatiko salaketetan ere kontuan hartu behar dira gogoeta horiek.

Gure ustez eragindako pertsonen polizia-jardunaren arrazoiak azaltzeko eta identifikazio-zenbakia emateko betebeharrak guztiz garrantzitsuak dira eta agenteak uniformerik gabe daudenean, izan ere kasu horietan pertsona horiek ez dute hasieratik agenteen polizia izaera ezagutzen –eta kexagilearen arabera, hori da gertatu zena–, eta datu hori ez ezagutzea erabakigarria izan daiteke gertakarien garapenerako, agenteak hasieratik uste badu pertsona horiek badakitela poliziak direla eta, hortaz, beraiekin hala erlazionatu behar direla.

Aipatutako gomendio eta betebeharrak horiek kexak hizpide duen polizia-jarduna aztertzeko ezinbesteko parametroak direla uste dugu, pizten dituen gaiekin duen zerikusiatatik.

Segurtasun Sailak emandako azalpenetatik ondorioztatzen denaren arabera (aurrekarietan transkribatu ditugunak), sail horrek ez dizkigu jakinarazi kexagileak horren inguruan mahai gainean jarritako kontuak, eta ez ditu argitu puntu horretan polizia-jardunaren zuzentasunaren inguruan agertutako zalantzak. Horrez gain, honako kontu hauei buruz ere ez digu informaziorik eman: agenteak interesdunari ahoz emandako identifikazio-zenbakia eta salaketan jasotakoa bat ez zetozeela, azken hori behar bezala ezin irakur zitekeela, eta jarduteko modu horren ondorioz kexagileak ez zekiela segurtasun osoz zein zen agentearen benetako identifikazio-zenbakia.

Informazio falta horren ondorioz ulertzen dugu sailak ez dituela argitu puntu horretan polizia-jardunaren zuzentasunari buruz kexagileak agertutako zalantzak, nahiz eta, gure ustez, hala egin beharko lukeen.

Halaber, betebeharrak eta aipatutako gomendioak azpimarratu behar ditugu, bai eta horiek betetzeko neurri zehatzak hartzeko beharra ere.

Bestalde, uste dugu kexak hizpide duen agentearen identifikazio-zenbakia segurtasun osoz ezagutzeko eskubidea duela kexagileak, eta horren inguruan agertu dituen zalantzak argitu behar dizkiola Segurtasun Sailak.

7. Polizia-kidegoek legez ahalmena daukate bide publikoan pertsonen identifikatzeko eskatzeko. Kexak hizpide dituen gertakariak jazo ziren unean legezko ahalmen horren erabilerak zerikusia zuen euren esku dauden segurtasunaren babeserako funtzioak betetze aldera pertsonen identitatea ezagutzeko beharrezkin [garai hartan indarrean zegoen Herriarren Segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 20.1. artikulua eta martxoaren 13ko Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen 2/1986 Lege Organikoko 11.1.f) eta g) artikulua].

Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean aipatu dugu, gure ustez, bide publikoan egiten diren identifikazioak –eskubideak mugatzen dituzten jardunak baitira–, behar bezala justifikatu behar direla, eta horien erregistroa eta justifikazioa dokumentatu behar direla. Halaber, aipatu dugu, agenteek kasuan kasuko kontrol-zentroari jakinarazi behar diotela



identifikazioa eta horren arrazoiak. Eta adierazi dugu identifikazioak justifikatzeko sarritan erabiltzen diren formula generikoak, "herriarren segurtasuna" esaterako, ez direla onargarriak (II.1.3 atala).

Aurrekarietan aipatu dugu Segurtasun Sailak ez dizkigula jakinarazi kexagilearen identifikazioa justifikatzen zuten arrazoiak, eskaeran berariaz adierazi genituenak. Ez dizkigu eman ezta ere identifikazioa jasotzen duen dokumentazio-erregistrorik, identifikazio hori aipatutako legezko esparrura eta gomendio orokorrera egokitu zela egiaztatzeko eskatu genituenak.

Informaziorik ez edukitzeak –ez baita justifikatu eta gure iritziz ez baitago justifikatuta– honako hau ulertzeraz behartzen gaitu: sail horrek ez dituela argitu interesdunak polizia-jardunaren zuzentasunari buruz agertutako zalantzak, eta gure iritziz, hala egin beharko luke.

Halaber, ulertu behar dugu kasu honetan ez direla gomendioan aipatutako bermeak bete, eta azpimarratu behar dugu, baita ere, berme horien eta horiek betetzen direla bermatzeko mekanismoak ezartzearen garrantzia.

8. Euskal herri-administrazioek betebeharra dute Arartekoari, lehentasuna emanik eta al bait lasterren, agiri, txosten edo argibide guztiak aurkezteko, azken erakunde horrek haren eginkizunak bete ditzan. Eskatutako informazioa eskuratzea zailtzen duen jarduera oro legez eragozpentzat jotzen da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Gure ustez, kasu honetan, Segurtasun Sailak ez du legezko betebeharrak hori behar bezala bete. Aurrekarietan azaldu dugun moduan, ez die erantzunik eman aipatu genizkion kontu gehienei, ez eta kexagileak kexan planteatu zituenei ere. Hori ez da justifikatu eta gure iritziz ez dago justifikatuta. Eskatu genizkion arren, ez dizkigu eman kexagilearen identifikazioa jasotzen duten erregistroak, eta ez digu jokabide horren zergatia azaldu.

Beste batzuetan ere adierazi izan dugun moduan, aipatutako kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun eskasak ematea oztopo handia dira gure eginkizunak behar bezala gauzatu ahal izateko, eta asko murrizten dituzte ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

1. Kexak xede duen polizia-jarduna iker dezala Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1 atala) jasotako gidalerroei jarraituz.
2. Kexak hizpide duen agenteak kexagilearen aurka desobeditzeagatik aurkeztutako administrazio-salaketa azter dezala, dokumentu horretan jasotako egitateek errealitatea islatzen dutela egiaztatzeko, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrak (II.2.3 atala) horren inguruan adierazten duena kontuan hartuta.
3. Kexak hizpide duen agenteak bete behar zituen gidalerroei jarraitu ote zien egiazta dezala aipatu den moduan, eta identifikazio-zenbakia emateko betebeharrari, kexagileari urruntzeko eman zion aginduari, hari eskatutako identifikaziori eta haren aurka desobeditzeagatik aurkeztutako administrazio-salaketari dagokionez.
4. Kexagilearen identifikazioa eta agenteak emandako alde egiteko agindua dokumentatu, erregistratu eta justifikatu ote ziren egiazta dezala, eskubideak mugatu dituzten eta bide publikoan egin diren jardunei dagokienez Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrak aipatzen duenaren arabera (II.1.3 atala).
5. Kexak hizpide duen agentearen identifikazio-zenbakia jakinarazi diezaiola kexagileari.
6. Kexagileak polizia-jardunaren zuzentasunari buruz agertu dituen zalantzak argitu ditzala.
7. Kexak hizpide dituen alderdiei dagokienez, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra betetzen dela bermatzeko mekanismoak ezar ditzala.